


EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019




AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

Bilbao

# Zinema fantastiko esperimentaletik bideo-jokoetara

*The Mask of Atlantis*



Aurten, FANT - Bilboko Zinemaldi Fantastikoaren 25. edizioa dela-eta, programa berezi bat egongo da zinemaldia hasi aurretik, hiriko erakunde batzuekin -besteak beste, Azkuna Zentroarekin- elkarlanean prestatua.

PREFANT horren barruan *Del cine fantástico experimental a los videojuegos* (Zinema fantastiko esperimentaletik bideo-jokoetara) topaketak egongo dira, *The Mask of Atlantis* bideo-jokoaren sortzaileak diren Mikel Calvo eta Jorge Núñezekin.

Bideo-jokoa Jorge Núñez zinemagilearen *The Mask of Atlantis* (2013) film esperimentalaren egokitzapena da. VHS formatuan grabatuta dago, eta ikuspegi narratiboa Z serieko zineman oinarrituta dago, baina aurri-egoeran. Zinemagilea Mikel Calvo diseinatzaile eta garatzailearekin batera bizi zen, eta azken honek filma ikusi zuenean bideo-jokoaren hizkuntzara egokitzeko proposamena egin zion. Munduak sortzeko 1991ko ZZT editorea erabiliz, bien artean prestatu zuten lana.

*The Mask Of Atlantis* esplorazioko bideo-joko bat da. Atlantidako maskararen bila dabilen ikertzaile baten abentura lasgarria. Puzzle burokratikoek, leize-zulo arraroek eta gameplay bitxi eta itsaskor batek osatzen dute esperimentu interaktibo honen esperientzia.

**Jorge Núñezek eta Mikel Calvok arlo esperimentalean lana sortzeko prozesua eta ikus-entzunezkoaren eta jokoaren arteko desberdintasunak azalduko dituzte. Aurkezpena egin ondoren, bideo-jokoa probatu ahal izango da, eta doan eskuratu ahal izango da Interneten.**

PREFANT programaren barruan, fantasia eta beldurrezko bideo-jokoen atzera begirako erakusketa bat dago ikusgai Jokuplay espazioan (Mediateka BBK. 2. Solairua). Informazio gehiago 87 orrialdean.



**Apirilak 9, asteartea**

19:00

**Medialab 2. Mediateka BBK  
Sarrera dohainik**



 [fantbilbao.eus/web](http://fantbilbao.eus/web)

 [FantBilbao](#)

 [fantbilbaoi](#)

 [FestivalFantBilbao](#)

